

ARABAKO ESI-KO LANGILEENTZAT FORMAZIO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Honen bidez, Arabako ESIko honako profesionalentzat diru-laguntzen deialdiak egiten dira: laboral finko edota estatutupeko izendapen finkoa edota bitartekoa dutenentzat, formazioan dauden profesionalentzat (BAME, BAEE, BAPE...), Arabako ESIan 2023an 6 hilabete baino gehiagoko lan-kontratua izan duten ordezkio edota ebentualentzat.

Honako diru-laguntza hauek izango dituzte:

- Formazio jarraituko ikasketak eta birziklatze profesionala, **osasun eremuaren baitako zentroetan edo eta erakunde ofizial edo homologatuetako baitan**, bai alderdi kliniko edo ikerketari dagokionez, baita kudeaketa eta administrazioari dagokionez ere.
- Prestakuntza-jarduerak prestakuntza-erakunde ofizialek edo homologatuek eman dituzten egiaztatze, bi aukera daude:
 1. Entitatea Ministerioko SEPEko (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan inskribatzeko agiria aurkeztea.
 2. Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen zigilua duen ziurtagiria aurkeztea.
- Lanpostuarekin erlazionaturiko ikasketekin eta beti ere, Osakidetza lanpostu funtzionalekin erlazionaturik daudenak.
- Osasun eremuaren baitan dauden ikasketak, bai alderdi klinikoei dagokionez eta ikerketa bere baitan hartzen duena, baita kudeaketa eta administrazioari dagokiona ere.
- Jardunaldi eta edo sinposioetan parte-hartzea.
- Laguntza horiek 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindako ikasketetarako dira.
- Prestakuntza-jarduera osorik egin dela egiaztatzen duen ziurtagiriaren bidez identifikatuko da.

BAZTERTZEAK

Laguntza hauetatik kanpo geratuko dira honako helburu hauek dituzten formazio jarduerak:

- BAME; BAFE, BAEE, PAME izateko sarbide proba
- Lan Eskaintza Publikoa
- Osakidetza lagundutako Formazio ibilbideetako formazio jarduerak
- Espezialitate kliniko batetako titulazioaren lorpena. Formazio jardueratzat joko da espezialitate kliniko bat lortzera doana, eta egoiliarren formazio programaren baitan dagoena.

EZINBESTEKO DOKUMENTAZIOA

1. Arabako ESIko intranet bidez aurkeztuko dituzte eskaerak interesatutako pertsonak:
<https://esiarabaosi.osakidetza.eus/eu/Profesionalak/formcont/prelag/Orriak/default.aspx>
2. Eskaera telematikoki bidali baino lehen, eskatzaileak kopia bat inprimatuko du. Behar **bezala sinatu eta erregistratu** beharko da Edozein erregistroan nahitaez aurkeztu beharreko gainerako agiriekin batera, Txagorritxu-Beheko solairua edo Santiago-2. C.
3. Eskabidearekin batera, behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, hala nola:
 - a. Ikastetxeko organo eskudunak **zigilatutako eta sinatutako faktura originala**, eskatzailearen izenean ordaindu dela adierazten duena, **edo eskatzaileak ikastetxera egindako banku-transferentziaren jatorrizko egiaztatzea**, ordaintzeko arrazoia eta data ere jasotzen dituen.
 - b. Bertaratze-ziurtagiriaren kopia, kongresuetarako, edo amaiera-ziurtagiria, prestakuntza-ikastaroetarako.
 - c. Jatorrizko beste faktura edo ordainketa-frogagiri batzuk (ostatua, joan-etorriak, etab.). Kongresura/ikastarora joateko ezinbestekoak diren gutxieneko gau-kopurua ordainduko da, gaueko 90 €-ko gehieneko mugarekin, BEZa barne. Mantenu-gastuak: 21 €, bazkari edo afariagatik BEZa barne, eta 6,30 €gosari bakoitzeko (ostatuan ez badago)

- d. Hala badagokio, kongresuan posterra/komunikazioa aurkeztu izanaren ziurtagiriaren kopia, sinposioa, eta horren egileak agertzen diren lekua.
4. Prestakuntza-planak ikasturte edo modulu bat baino gehiago egitea aurreikusten duen ikasketak bukatutzat joko dira ikasketa-programan zehazten den azken maila edo amaierako proba amaitzen den egunean. Kasu horietan, irakasgai bakoitzerako lehen matrikula baino ez da diruz lagunduko, eskabidean jatorrizko ziurtagiri akademikoa aurkeztuta.

Eskaerak aurkezteko epea: 2023ko azaroaren 13tik 2023ko abenduaren 15era.

ESKAEREN EBAZPENA

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Batzorde Mistoak baloratuko ditu lan-kontratuko langileei dagozkienak, hitzarmen kolektiboan ezarritako irizpideei jarraituz, eta gainerako eskaeren eskabideak Prestakuntza Batzordeak eta Arabako ESIko Langileen Batzordeak baloratuko dituzte, aplikatu beharreko prestakuntza-araudiaren arabera.

Dokumentazio osoa duten eskabideen zerrenda eta deialdiaren baldintzak zuzendu behar dituzten edota betetzen ez dituzten eskabideen zerrenda argitaratuko dira.

Zuzendu ezean, interesdunak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Laguntza horiek ARABAKO ESIko Langileen zuzendariaren ebazpen baten bidez eman eta ukatuko dira, eta ARABAKO ESIko intranetean argitaratuko da.